

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

3,12 milioi eman dira herrialde txiroetan garapenerako lankidetzako 26 programa finantzatzeko

Elikaduran, osasunean, hezkuntzan eta emakumeen sustapenean oinarritzen dira, bereziki

Miércoles, 27 de mayo de 2015

Gizarte Politiken Departamentuak 3,12 milioi euroko laguntza eman du Latinoamerika eta Afrikako 11 herrialdeetako garapenerako 26 lankidetzaprograma eta -proiektu finantzatzeko, babesgabeak eta txiroak diren biztanleen baldintzak hobetze aldera.

Esku-hartze horiek Nafarroako GGKEek sustatzen dituzte, eta jarduerak egingo diren herrialdeetako tokiko bazkideak dituzte. Elikaduran, osasunean, hezkuntzan eta emakumeen sustapenean oinarritzen dira, batez ere.

Hala ondorioztatzen da Gizarte Politika eta Kontsumoko jarduneko zuzendari nagusi Mariano Otok emandako ebazpenetatik; haien arabera, diru-laguntzen bi deialdien zenbatekoa garapenerako lankidetzaprogrametarako esleitzen dira, haiek zenbait urtetarako prestatzen dira eta urteroko proiektuekin 2015erako.

Lehen kasuan, Gizarte Politiken Departamentuak 1,65 milioi euroekin finantzatuko ditu Bolivia, El Salvador, Guatemala, Mali eta Peruko [zortzi lankidetzaprograma](#). Aldiz, bigarren deialdiarekin [18 proiektu](#) diruz lagunduko dira (1,47 milioi), honako herrialde hauetan egin direnak: Aljeria, Bolivia, El Salvador, Guatemala, Haiti, Mauritania, Peru, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Rwanda eta lurralde palestinarak.

Garapenerako lankidetzako beste hiru deialdi

Gogora ekarri behar da, Gizarte Politiken Departamentuak aurtengo beste hiru deialdi eskaini dituela garapenerako lankidetzari lotuta, 742.242 euro, guztira.

Saharako biztanleentzako laguntzako humanitarioa, (240.000), larrialdi-egoeran dauden ekintza humanitarioetarako (240.000 euro), garapenerako hezkuntzakoak eta sentsibilizazio-ekintzak (262.242 euro).